

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak LHko Berrikuntza, Sormen eta Ekintzailetzako lehen jardunaldiei amaiera eman die

Ekitaldian Manuel Torres diseinatzaile industrialaren ibilbidea aitortu da

Viernes, 11 de mayo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Lanbide Heziketako Berrikuntza, Sormen eta Ekintzailetzako lehen jardunaldiei amaiera eman die gaur. Astelehenetik gaur arte luzatu dira jardunaldiok Civican-en (Iruña).

Ekitaldian Manuel Torres diseinatzaile industrialaren ibilbidea aitortu da, MTorres talde industrialeko

lehendakaria, eta Barcina Lehendakariak hari eman dio, gainera, LHko Berrikuntza, Sormen eta Ekintzailetzako lehen saria. Gogora ekarri behar da MTorres taldean 400 pertsonak egiten dutela lan, eta kopuru horretatik % 80 kualifikazio handiko teknikariak dira, eta diru-sarreraren % 15a I+G+Bra bideratzen du. Torresek sari asko jaso ditu: Enpresa Berritzailearen 2005 eko Industria Ingeniaritzako Sari Nazionala, 2007ko Berrikuntza Teknologikoko Enpresa Bikaintasunaren Felipe Printzea Saria eta Nafarroako Ganbera Saria 2009ko Enpresa Ibilbideagatik.

Barcina Lehendakariak bere agerraldian azpimarratu duenez, "Gure Komunitateak egun inoiz baino gehiago behar du konformismoarekin eta ekimen faltarekin amaitzea, eta mentalitate-aldaketa bat bizi behar du ekintzaileak sortzeko". "Profesional kualifikatuak sortzea behar dugu eta, gainera, ekiteko ideiak, prestakuntza eta ausardia dituztenak" adierazi du.



Barcina Lehendakaria Manuel Torresi saria ematen.

Itxiera-ekitaldian, gainera, parte hartu dute: Caja Navarra Fundazioko lehendakari María Ibáñez-ek eta Nafarroako Gobernuo Lanbide Heziketako Zerbitzuaren zuzendari Marino Barásain-ek.

Foru Gobernuak, Caja Navarra-k eta Diario de Navarra Fundazioak antolatutako programaren

helburua izan da, Nafarroako LHren arloan berrikuntza, sormena eta ekintzailtza sustatzea; horrekin batera, jarduera

ekintzailea sustatzeko ikasleari bere gaitasunak identifikatzen lagunduko dioten giltzarrietan sakontzen.

1.800 ikasleren parte-hartzea

Lanbide Heziketako goi-zikloetako lehen ikasturteko 1.800 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute Nafarroako LHko Berrikuntza, Sormen eta Ekintzailtzaren Lehen Astea.

Zehazki, honako zentroetako ikasleak izan dira: ETI LHI, Ibaialde LHI, Virgen del Camino LHI, Lizarra LHI, Ega BHI, Ribera del Arga BHI, Donapea LHI, San Migel de Aralar II BHI, Maria Ana Sanz LH, María Inmaculada CPFP, Carlos CPFP, Adaptación Social BHI, Tafalla LHI, Lekaroz BHI, Toki Ona BHI, Corellako Arte Eskola, Sierra de Leyre BHI, Cuatrovientos CPFP, Foro Europeo, San Juan BHI, Nekazaritza eta Basozaintzako LH, Iruñeko Arte Eskola, CPFP Centro de Formación Politécnica CPFP, Salesianos BHIP, Osasuneko LH eta Energia Berriztagarrien Goi LHko LH.

Haietzako saioak antolatu dira, eta bertan ekintzaile batek bere lan-ibilbidea azaldu du; enpresa bat sortzeko tailerrak ere prestatu dira, musika-bideo bat egitea ezpainen bikoizketa teknikarekin (lip-dub), enpresa sozial baten ezagutza eta komunikazioa.

Programak, gainera, hezkuntza-komunitate guztiarentzako hitzaldiak barnean hartu ditu, Lanbide Heziketako irakasleentzat bereziki; bertan parte hartu dute gidoilari eta idazle Albert Espinosa-k; MRC International Training-eko bazkide-zuzendari Manel Reyes-ek eta Everis-ko senior innovation strategy consultant Alejandro Ambrad-ek.



Lehendakariaren mahai. Ezkerretik eskuinera: Torres, Barcina, Ibáñez eta Barásain.